

Markina-Xemeingo azentua

Orkatz Gandiaga Ibarzabal

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)
ogandiaga002@ikasle.ehu.es

Abstract

As the title indicates, this article analyses the accent from Markina-Xemein (province of Bizcay) based on two women of different generations. The main objective of the article is to study any accent change and to describe the accent evolution based on the data collected from these two women. In order to carry out the research, a theoretical explanation regarding to the accent opens the article. This explanation constitutes the theoretical basis for the next sections of the article.

Laburpena

Izenburuak dioten bezala, Markina-Xemeingo azentuaren inguruan jardungo da lanean zehar bi belaunaldi ezberdinetako bi emakume lekukotzat hartuaz. Lan honen helburua Bizkaiko herri honetako azentuan aldaketaren bat gertatu den aztertzea eta azentuaren jokaera deskribatzea da emakumeok emandako datuez baliatuz. Azterketa hau aurrera eramateko, artikularen hasieran, azentuaren inguruko azalpen teorikoa emango da, aurrerago aztertuko denaren oinarri.

Keywords: Prosody, accent, regional variation, Basque language

Gako hitzak: Prosodia, azentua, lurralde bariazioa, euskara

1. Sarrera

Azentua¹ silaba bati ezartzen zaion nabarmentasun prosodikoa da eta honen eremu naturalizat hitza (azentu unitate gisa ulertuta) hartu ohi da. Hala ere, esan beharra dago ezaugarri suprasegmentala dela, ezin baita tasun bereizgarritzat hartu. Ezaugarri suprasegmentalak honako hauek dira:

“son unidades más amplias que el segmento. Acento, tono y duración se han considerado a menudo propiedades de unidades suprasegmentales tales como la sílaba o la palabra, aunque la armonía vocálica y la nasalización se han visto también a veces incluidas bajo este cabezamiento. Es decir, que rasgos prosódicos como los que acabamos de mencionar es mejor verlos como unidades que abarcan a más de un segmento.”

Hyman (1981:223)

Tasun bereizgarriak, ordea, segmentuei dagozkienak dira eta edozein posiziotan agertu daitezke, baina gorago esan bezala azentua ez. Nahiz eta badauden azentua hitzaren menpe duten hizkuntzak ere.

Hizkuntza bakoitzak, azentuaren kokapena erabakitzeke, erregela edo arau eta murriztapen ezberdinak erabili ohi ditu, baina sarritan ez da argi egoten zein ezaugarri erabiltzen diren. Zailtasun honen aurrean, Hualdek azentuaren fenomeno fisiko bezala honako hau proposatzen du, jakinda, hizkuntza

¹ Besterik esan ezean, hemen aipatzen dena Hualde (1997) lanetik hartu da.

bakoitzean ezaugarri bakoitzak garrantzia handiagoa edo txikiagoa duela:

- a. Tonua (uhinaren oinarritzko maiztasuna): Intonazioaren gorabeherak silaba azentudunekin lerrotzen dira.
- b. Intentsitatea edo indarra (uhinaren zabalera): silaba azentudunak indar gehiagoz ahoskatu ohi dira.
- c. Iraupena: silaba azentudunak azentugabeak baino luzeagoak ohi dira.
- d. Ahoskeraren garbitasuna (hiperartikulazioa): silaba azentudunak garbiago, prezisio gehiagoarekin, ahoskatzen dira.”

Hualde (1997: 45)

Van der Hulst-ek (2010) ere azentudun silabak eduki ditzakeen ezaugarriak proposatu ditu baina hauek ezaugarri foniko eta fonologikoak dira. Hala ere, proposamen hau egitean zehazteke dauden ezaugarri gehiago ere badaudela dio:

- a. Silabak iraupen luzeagoa du.
- b. Silabak espektro-inklinazio orekatua du.
- c. Silabak anplitude handiagoa du.
- d. Silabak oinarritzko maiztasun altuagoa du.
- e. Silaba horretako hizkiak zehatzago eta argiago ahoskatu dira.
- f. Aukera fonotaktiko handiagoak ditu.
- g. Silabak prozesu morfologikoak gertatzeko gunea zehazten du.
- h. Silaba aingura da intonazio tonuentzat.”

Van der Hulst (2010: 9)

Ezaugarri hauek edo beste batzuk kontuan izanda, hiru azentu mota desberdindun hizkuntzak bereizten dira gaur egun: tonu hizkuntzak, indar-azentuzko hizkuntzak eta doinu-azentuzko hizkuntzak. Tonu hizkuntzetan silaba bakoitzak tonu bat darama eta tonua ezaugarri lexikoa da. Indar-azentudun hizkuntzetan azentua da ezaugarri lexikoa eta tonua esaldi mailakoa. Eta azkenik, doinu-azentudun hizkuntzak daude, aurreko bien nahastea direnak. Hauek azentua eta lexikoari edo unitateari dagokion tonua konbinatzen dituzte.

Munduko hizkuntzetan erregela batzuk oso sinpleak dira, adibidez, hitzek azentua azkenaurreko silaban edukitzea (swahilierak) edo hitzen lehen silaban (hungarierak). Beste hizkuntza batzuk bi kokagune eduki ohi dituzte azken silabaren astuntasunaren arabera (latinak) eta, azkenik, beste batzuk erregela zehatzik hitz guztientzat izan ez arren, murriztapenak dituzte.

Azentua ezartzeko Hualdek (1997) bi sistema erabiltzen ditu; *ertzeko azentua* [+ertz], hitzaren hasiera edo amaiera izan daiteke abiapuntua, eta *azentu morfologikoa* [+am], azentua morfema jakin batzuekin elkartuta agertzen denean.

Ertzeko sisteman silaben astuntasuna edo arintasuna ere kontuan hartu behar da hizkuntza batzuetan. Ezaugarri honi *kuantitatezko sistema* deritzo [+kuant] eta irizpide hau kontuan hartuta, [+ertz, +kuant], latinaren kasua besteak beste, eta [+ertz, -kuant] sistemak aurkitu ditzakegu:

“[+ertz, -kuant] sistemeak

Azentua hasierako/bukaerako ertzetik kontatuz ezartzen da

- [ó finera (suomiera), hungariera, islandiera, txekera = [+1]
- [o ó erdialdeko euskal hizkera asko (adib. Ofiati, Bortzirriak) = [+2]
- [o o ó Urolaldeko euskal hizkerak = [+3]
- ó] frantsesa = [-1]
- ó o] poloniera, swahili, que chua, zuherera = [-2]
- ó o o] mazedoniera = [-3]”

Hualde (1997:9)

Zein ertzetatik hasten den adierazteko / (hasierakoa) eta / (amaierakoa) erabiltzen dira eta *o*-k silaba azentugabeak adierazten ditu eta *ó*-k silaba azentudunak. Euskararen hedatuena dagoen ertzeko azentua [+2] mota da eta hau Bortzirietan, Gipuzkoako hainbat lekutan, Durangaldean, Araban eta beste hainbat tokitan erabiltzen da (Gaminde & Hualde 1995).

Azentu morfologikodun hizkuntzetan morfemek azentu lexikoa dute. Hala ere, hizkuntza denetan ez da

berdin gertatzen, batzuetan, erroek dute azentua eta klitikoek ez (ingelesaren kasuan, adibidez) eta beste batzuetan, Gernikako euskararen kasuan esaterako, atziki batzuk dira azentudunak eta erro batzuk ez.

Gurera hurbilduz, jakina da euskarak ez duela azentu sistema bat eta bakarra; herriz herri, eskualdez eskualde edota lurraldez lurralde azentua aldatu egiten da beste edozein ezaugarri bezala. Ekialdeko euskarak, adibidez, [-2] azentu forma du eta, oro har, baita mendebaldeko euskarak ere. Erdialdean, ordea, [+2] forma da hedatuena dagoena.

Lan honetan Markina-Xemeingo azentuaren nondik norakoak ikusteko, bi belaunaldik elkarren artean desberdintasunik duten aztertuko da. Izan ere, euskarak azken urteotan beste hizkerekin eta hizkuntzekin izan duen harremanagatik, posible baita aldaketaren bat gertatu izana. Gainera, arestian esan bezala, hainbat euskal lurraldetan [+2] azentu mota dute eta posible izan daiteke azentu hori zabaltzen joatea, hau da, azentua Euskal Herrian neutraltzen hastea. Horrez gain, Markina-Xemeingo azentua nolakoa den ere ikusiko da, berau ahalik eta ondoen deskribatzen ahaleginduz.

2. Corpusa eta metodologia

Ikerketa hau gauzatzeko bi lekukoren ahotsak grabatu dira EUDIA ikerketa taldeak Euskal Herri Kontinentalean azentua aztertzeko erabilitako galdesorta berarekin, hitzak gaztelerara itzulita. Hau sei galderak edo ariketak osatzen dute.

Lehendabiziko hiru galderak irudiak dira eta bakoitzak, azpiko aldean gazteleraz bere izena du eta lekukoek euskaraz esan behar dituzte. Laugarrenean 10 galdera daude *gizona* eta *herria* hitzak erabiliz erantzuteko. Galdera horiek gisa honetakoak dira:

- (1) Nork jan du?
Norena da?

Bosgarrenean, euskara batuan dauden esaldi batzuk errepikatu behar dituzte beraien euskalkian eta seigarrenean, sei binetatan agertzen den istorio bat azaldu.

Lan honetan, ikerketa taldea bera Ipar Euskal Herrian zehar azentuaren inguruko ikerketak egiten ari den modu berean, profil jakin bat duten bi pertsonaren aukeraketa egin behar izan da, proiektuaren irizpideen arabera. EUDIAk bi emakume aukeratu izan ditu; bata 45-55 urte dituen eta egunerokotasunean euskara batuarekin eta baserri-inguruarekin harremanik ez duena. Eta bestea aldiz 20-30 urte dituen eta unibertsitateko ikasketekin harremana duena edo izan duena. Lan honetan Mari Karmen Ibarzabal Egia -55 urteko emakumea da eta sukaldaria- eta Maddi

Ibaibarriaga Zubikarai -27 urteko emakumea da eta publikitate ikasketaduna- grabatu dira².

Mari Karmen Ibarzabal Egia (L1) bere etxeko egongelan grabatu da eta Maddi Ibaibarriaga Zubikarai (L2) ikasle-pisuko logela batean. Horretarako *Leotec* etxeko MP4 gailu digital bat erabili da.

Grabatu ostean, grabazio horien transkribapen fonetikoak egin da IPA (*International Phonetic Alphabet*) sistema alfabetikoa erabiliz eta ondoren azterketaren egituratzea hasi da.

Azterketa honetan galdesortaren lehenengo bost ariketak erabiliko dira. Lehenbizi bi lekukoen artean ea ezberdintasunik agertzen den aztertuko da forma bakoitzean eta gero forma horiek alderatuko dira. Ondoren azentua ezartzeko lekua, norabidea eta posizioa aztertuko dira singularreko eta pluraleko formak, talde klitikoak, galderen erantzunak eta esaldien errepikapenak kontuan hartuz.

3. Azterketa

3.1. Hitzak

Bi belaunaldiak konparatzeko, galdesortako lehenengo hiru galderak aztertuko dira lehendabizi. Hemen, lehenago esan bezala, hainbat irudi erakutsi zaizkie lekukoei ordena honetan: hitzak singularrean³, talde klitikoarekin eta pluralean. Hiruretan irudi berdinak erabili dira, nahiz eta, pluralerako irudi gutxiago erabili diren galdesortan ez zeudelako. Ondoko orrialdeetan datuok argitzeko hainbat taula azalduko dira oraintsu esan den ordena berean.

3.1.1. Singularreko formak

EB ⁴	L1	L2
Ura	[ˈure]	[ˈure]
Sua	[ˈsue]	[ˈsue]
Aza	[aˈʃie]	[aˈʃi]
Gazta	[gaʃˈtaje]	[ga ʃˈtaje]
Semea	[ʃeˈmie]	[ʃeˈmie]
Herria	[eˈriʃe]	[eˈriʃe]
Astoa	[aʃˈtue]	[aʃˈtu]
Katua	[kaˈtu]	[kaˈtue]
Alaba	[alaˈβi]	[alaˈβi]
Txakurra	[tʃaˈkure]	[tʃaˈkure]
Sagarra	[saˈɣara]	[saˈɣara]
Gizona	[giˈɣona]	[giˈɣona]
Itsasoa	[itʃoˈsu]	[itʃoˈsu]
Iturria	[iˈturiʃe]	[iˈtʃuriʃe]
Sukaldea	[eʃˈkatsa]	[eʃˈkatsa]
Arratoia	[araˈtoj]	[araˈtoje]
Alarguna	[alarˈgune]	[alarˈgune]
Aberatsa	[aβeˈratsa]	[aβeˈratsa]
Oilarra	[ˈoɫara]	[ˈoɫara]
Intxaurra	[ˈintʃawre]	[ˈintʃawre]
Kafea	[ˈkafie]	[kaˈfi]
Belarria	[beˈlariʃe]	[beˈlariʃe]
Habia	[aˈβiʃi]	[aˈβiʃi]

1. Taula: Singularreko hitzen zerrenda, lekuko bakoitzak emana.

Goiko taulan ikusi daitekeenez, hitzen singularreko forman biek azentu bera dute, ez da ezberdintasunik ageri lekukoen artean hitz batean izan ezik; *kafea* hitzean. L1 lekukoak azentua hitz hasieran jarri du, lehendabiziko silaban: [ˈkafie]. Eta L2k, ordea, bigarren silaban: [kaˈfi].

Ondorengo taulan hitzok silaba kopuruka⁵ banatuko dira, honek⁶ eraginik ote duen ikusteko azentua ezartzean. Ikusi daitekeenez bi, hiru eta lau silaba dituzte hitzek:

²Eskerrak eman nahi dizkiet bi lekukoei ikerketa hau egin ahal izateko galdetegi egin eta grabatzen uzteagatik.

³Hitz zerrenda hau hartuko da eredu bezala beste bi hitz zerrendekin, hots, klitikoekin eta pluraleko formekin konparatzeko.

⁴ *Euskara batua*.

⁵ Azentuari dagokionez desberdintasunik ez dutenez, bi lekukoen hitzetatik egokienak iruditu direnak erabiliko dira bai hemen eta baita silabaka banatuko diren ondorengo ataletan ere.

⁶ *kafea* hitza ez da erabiliko azentu modu ezberdina jarri diotelako.

2 silabakoak	3 silabakoak	4 silabakoak ⁷
[ˈure]	[aˈʒie]	[alaˈβi]
[ˈʒue]	[gaʒˈtaje]	[araˈtoje]
	[ʒeˈmie]	[alarˈgune]
	[eˈriʒe]	[aβeˈratsa]
	[aʒˈtue]	[itfoˈʒu]
	[kaˈtue]	[beˈlariʒe]
	[tʃaˈkure]	[iˈcuriʒe]
	[ʒaˈyara]	[aˈβiʒi]
	[giˈʒona]	
	[eʒˈkatsa]	
	[ˈoɫara]	
	[ˈintʃawre]	

2. Taula: Singularreko hitzak silabaka sailkatuta.

Hasteko, bi silabako unitateak aztertuko dira. Silaba kopuru honetako bi kasu daude eta biek dute azentua [-2] posizioan.

Hiru silabako gehienek, bi silabakoetan bezala, [-2] posizioan dute azentua. Hala ere, badira bi [-3] silaban dute.

Eta azkenik, lau silabako gehienek [-2] silaban dute azentua, nahiz eta badiren hiru kasu, hemen ere, azentua silaba ezberdinean daukatenak. Hauek [-3] posizioan dute.

Laburbilduz:

2 silabakoak	3 silabakoak	4 silabakoak
ó-o]	o-ó-o]	o-o-ó-o]
	ó-o-o]	o-ó-o-o]

3. Taula: Ikusitako hitzen azentuaren posizioa silaba kopuruka.

Taulan garbi ikusi daitekeenez, singularreko unitateen azentua [-2] posizioan kokatzen da eta silaba kopuruak ez du eraginik posizio hori ezartzeko orduan. Dena dela, kontuan hartu behar dira hiru eta lau silabako unitateetan azentua [-3] posizioan duten hitzak. Hauek azentu markatua, azentu morfologikoa dutela esan daiteke baina beste adibideak ikusi ostean ziurtatuko da horrela den edo ez.

⁷ Zutabe honetan itxuraz, hiru silabako hiru hitz daude. Baina kontuan eduki behar da artikulua esplizituki falta zaiela. Hualderen (1997) lanean mota honetakoak o-o-ó] formarekin adierazten ditu eta honako forma honen adiera bertsua da: o-o-ó-o].

3.1.2. Talde klitikoko formak

Unitateak singularrean ikusi ostean, izan aditz laguntzailearen 3. pertsona singularreko formarekin batera zer gertatzen den ikusiko da. Norbaitek taula ikusita esan dezake azentua [+1] desplazatu dela, baina kontuan hartu behar da aditz laguntzailea azentu unitatearen barnean kokatzen dela. Hona hemen bi lekukoeren erantzunak:

EB	L1	L2
Ura da	[uˈre ða]	[uˈre ða]
Sua da	[ʒuˈe ða]	[ʒuˈe ða]
Aza da	[aʒiˈe ða]	[aʒiˈe ða]
Gazta da	[gaʒtaʒˈe ða]	[gaʒtaʒˈe ða]
Semea da	[ʒemiˈe ða]	[ʒemiˈe ða]
Herria da	[eriˈʒe ða]	[eriˈʒe ða]
Astoa da	[aʒtuˈe ða]	[aʒtuˈe ða]
Katua da	[kaˈtu ða]	[kaˈtu ða]
Alaba da	[alaˈβi ða]	[alaˈβi ða]
Txakurra da	[tʃakuˈre ða]	[tʃakuˈre ða]
Sagarra da	[ʒaʒaˈra ða]	[ʒaʒaˈra ða]
Gizona da	[giʒoˈna ða]	[giʒoˈna ða]
Itsasoa da	[itʃoʒuˈe ða]	[itʃoˈʒu ða]
Iturria da	[iˈcuriʒe ða]	[iˈtʃuriʒe ða]
Sukaldea da	[eʒkaˈtsa ða]	[eʒkaˈtsa ða]
Arratoia da	[aratoʒˈe ða]	[aratoʒˈe ða]
Alarguna da	[alarguˈne ða]	[alarguˈne ða]
Aberatsa da	[aβeraˈtsa ða]	[aβeraˈtsa ða]
Oilarra da	[ˈoɫara ða]	[ˈoɫara ða]
Intxaurra da	[ˈintʃawre ða]	[ˈintʃawre ða]
Kafea da	[ˈkafie ða]	[ˈkafie ða]
Belarria da	[beˈlariʒe ða]	[beˈlariʒe ða]
Habia da	[aˈβiʒi ða]	[aˈβiʒi ða]

4. Taula: Talde klitikoaren zerrenda, lekukoeren emanda.

Forma hauetan ere ez da bi lekukoeren azentuaren arteko ezberdintasunik ageri. Silaba bat gehitu zaienez hitz denei, aldaketa honek eraginik duen ikusteko silabaka banatuko dira:

3 silabakoak	4 silabakoak	5 silabakoak
[u're ða]	[aʃi'e ða]	[ala'βi ða]
[su'e ða]	[gaʃtaj'e ða]	[itʃoʃu'e ða]
	[semi'e ða]	[aβera'tsa ða]
	[eri'fe ða]	[aratoj'e ða]
	[aʃtu'e ða]	[alargu'ne ða]
	[ka'tu ða]	[i'curi'fe ða]
	[tʃaku're ða]	[be'lari'fe ða]
	[ʒaʃa'ra ða]	[a'βiʃi ða]
	[giʒo'na ða]	
	[eʒka'tsa ða]	
	[o'ɫara ða]	
	[i'ntʃawre ða]	
	[kafie ða]	

5. Taula: Talde klitikoak silabaka sailkatuta.

Singularreko formekin egin den moduan, oraingoan ere silaba kopurua kontuan hartuta azentua non kokatzen den ikusiko da. Horreta-rako, lehendabizi hiru silabako unitateak ikusiko dira. Silaba kopuru honetako bi adibide daude eta biek dute azentua [-2] posizioan.

Lau silabakoetan, lehengo adibideetan be-zala, azentua ezartzeko bi posizio ezberdin daude: [-2] eta [-3] posizioak.

Eta adibideok amaitzeko, bost silabako gehienek [-2] silaban dute azentua, baina hiruk [-3] posizioan.

Esan dena argi ikusteko, ondorengo taulan dago laburpena.

3 silabakoak	4 silabakoak	5 silabakoak
o-ó-o]	o-o-ó-o]	o-o-o-ó-o]
	ó-o-o-o]	o-ó-o-o-o]

6. Taula: Ikusitako hitzen azentuaren posizioa silaba kopuruka.

Nahiz eta silaba bat gehitu unitateari, azen-tuak ez du posizioa aldatu, [-2] posizioan koka-tzen jarraitzen du unitateak silaba gehiago edo gutxiago eduki arren. Azentu markatua dutenek hots-kate berean mantendu dute azentua baina [-1] posiziora mugitu da unitateari dagokionez.

3.1.3. Pluraleko formak

EB	L1	L2
Azak	[ʻaʒak] ⁸	[ʻaʒak]
Gaztak	[ʻgaʒtajk]	[ʻgaʒtajek]
Semeak	[ʻsemik]	[ʻsemiek]
Herriak	[ʻerifek]	[ʻerifek]
Astoak	[ʻaʒtuk]	[ʻaʒtuek]
Katuak	[ʻkatuk]	[ʻkatuk]
Alabak	[a'laβak] ⁹	[a'laβak]
Txakurrak	[ʻtʃakurek]	[ʻtʃakurek]
Sagarrak	[ʻʒaʃarak]	[ʻʒaʃarak]
Gizonak	[ʻgiʒonak]	[ʻgiʒonak]
Iturriak	[i'curi'fek]	[i'tʃuri'fek]
Arratoiak	[a'ratojk]	[a'ratojek]
Alargunak	[a'largunek]	[a'largunek]
Aberatsak	[a'βeratsak]	[a'βeratsak]
Belarriak	[be'lari'fek]	[be'lari'fek]

7. Taula: Pluraleko hitzen zerrenda, lekukoek emanda.

7. taulan ikusi daitekeenez, hitzak pluralean emanda ere, bi lekukoek azentuaren artean ez dago ezberdintasunik. Baina hitzak singularrean egon edo pluralean egon badago ezberdintasuna.

Aurreko ataletan bezala, errazago ikusteko silabaka banatuko dira hitzak ondorengo taulan, baina azak eta alabak hitzak sailkapen honetan ez dira kontuan hartuko:

3 silabakoak	4 silabakoak
[ʻgaʒtajek]	[i'curi'fek]
[ʻsemiek]	[a'ratojek]
[ʻerifek]	[a'largunek]
[ʻaʒtuek]	[a'βeratsak]
[ʻkatuk]	[be'lari'fek]
[ʻtʃakurek]	
[ʻʒaʃarak]	

8. Taula: Pluraleko hitzak silabaka sailkatuta.

⁸Hitz honek singularrean hiru silaba eduki ditu baina oraingoan bi dauzka. Hau -a itsatsia duelako gertatu da. Singularrean artikulua gehitzean honako hau da emaitza: a+a>ie. Baina plural marka gehitzean honako hau: a+k>ak.

⁹Azak hitzarekin gertatu den fenomeno bera gertatzen da.

Kasu honetan ez dugu bi silabakoen adibiderik, orduan hiru silabako unitateei eutsiko zaie. Oraingo guztietan kokatzen da azentua unitatearen [-3] posizioan salbuespenik gabe.

Lau silabakoetan ere, lehenago gertatu ez den bezala, unitatearen [-3] posizioan kokatzen da azentua eta ikusten den bezala, hemen ere ez dago salbuespenik.

Ondorengo taulan pluraleko hitzen inguruan esan denaren laburpena dago. Testu normala hemen. Ondorengo paragrafoaren ostean buletak dituen zerrenda baten adibidea ikus daiteke.

3 silabakoak	4 silabakoak
ó-o-o]	o-ó-o-o]

9. Taula: Ikusitako hitzen azentuaren posizioa silaba kopuruka.

Pluraleko formetan ere, aurrekoetan bezala, silaba kopuruaren arabera ez da aldatu azentuaren posizioa.

3.2. Azentuaren lekua, norabidea eta posizioa

Puntu honetan azentuaren lekua, norabidea eta posizioa aztertuko dira baina lehendabizi labur-labur zer diren azalduko da:

- **Lekua:** azentua unitatearen zein morfematan kokatzen den (hitzean, atzizkian...).
- **Norabidea:** bi unitate edo gehiago (lan honetan singularra, plurala eta klitikoak) konparatu ostean, azentua nora mugitzen den ikustea da. [+] zeinua agertzen denean, azentua, hitzaren eskuinalderantz desplazatu dela esan nahi da eta [-] agertzean ezkererantz mugitu dela.
- **Posizioa:** azentua unitatearen zein silabatan dagoen kokatuta adierazten du.

Aurreko tauletako datuak eta galdesortako beste bi galderatako erantzunak erabiliko dira azaldu berri dena aztertzeko.

3.2.1. Singularra, talde klitikoa eta plurala

Lekukoek emandako datuak, singularrean dituzten silaba kopuruaren arabera, hiru multzotan¹⁰ banatu dira azterketa erraztuko duen ustean. Horregatik, konparazioak egiteko erreferenteak singularreko formak izango dira.

Aipatutako hiru multzoetatik lehena bi¹¹ silabakoek osatzen dute. Hemen bi unitate daude: *ura* eta *sua*. Kasu hauetan azentuaren lekua erroan dago, zehazki lehenengo silaban, [-2] posizioan: [‘sue] eta [‘ure].

¹⁰ Azentu markatua duten hitzak ez dira kontuan hartuko: *iturria*, *oilarra*, *inxaurra*, *kafea*, *belarrria* eta *habia*.

¹¹ Bi hitz hauek galdesortan pluraleko formarik ez dutenez, “X da” formakoekin alderatuko dira soilik.

Aditz laguntzailea gehituz gero, unitateari silaba bat gehitzen zaio: [su’e ða] eta [u’re ða]. Honek azentuaren lekuan aldaketa dakar; azentua artikulua jasotzen du, baina posizioa ez du aldatzen, [-2] posizioan mantentzen du.

Bigarren multzoa hiru silabako forma hauek osatzen dute:

Singularrean	Talde klitikoa	Pluralean
[a’šie]	[aši’e ða]	[‘a şak]
[gaş’taje]	[gaştaj’e ða]	[‘gaştajek]
[şe’mie]	[şemi’e ða]	[‘şemiek]
[e’ri’fe]	[eri’fe ða]	[‘erifek]
[tfa’kure]	[tfaku’re ða]	[‘tfakurek]
[şa’çara]	[şaya’ra ða]	[‘şayarak]
[gi’şona]	[gişo’na ða]	[‘gişonak]
[eş’katsa] ¹²	[eşka’tsa ða]	-
[aş’tue]	[aştu’e ða]	[‘aştuek]

10. Taula: Singularrean hiru silaba dituzten hitzak edota multzoak.

Multzo honetan lehendabizi singularreko forma klitikoarekin konparatuko da. Ezberdintasun hori ikusteko, 10. taulan lehen bi zutabeei erreparatu behar zaie; kasu honetan, bi silabakoen portaera bera dute, hau da, azentua lekuz aldatzen da -errotik artikulura- eta bi unitateek [-2] posizioan mantentzen dute azentua.

Eta bigarrenik, singularren eta pluralen ar-teko ezberdintasunak ikusteko lehen eta hiruga-rren zutabeei erreparatu behar zaie. Ikusten denez, hemen kontrakoa gertatzen da, azentua ez da lekuz mugitzen baina bai posizioz. Bi formetan azentua hitzaren erroan kokatzen da baina singularrean [-2] posizioan eta pluralean aldiz [-3] posizioan. Ezkererako norabidea hartu du, [+1] desplazamendua eginez.

Hiru silabako unitateak amaitzeko, hiruga-rren eta azken multzoa aztertuko da. Hau lau silabako formek osatzen dute:

Singularrean	Talde klitikoa	Pluralean
[ara’toje]	[aratoj’e ða]	[a’ratojek]
[alar’gune]	[alargu’ne ða]	[a’largunek]
[aße’ratsa]	[aßera’tsa ða]	[a’ßeratsak]

11. Taula: Singularrean lau silaba dituzten hitzak edota multzoak.

Kasu honetan ere singularreko formak aditz laguntzailekun formekin konparatuz, aurreko

¹² Hitz hau galdesortan ez da pluralean agertzen.

multzoetan gertatu den fenomeno bera gertatzen da: azentuak posizio bera mantentzen duela bi formetan eta hitzaren errotik artikulura mugitu dela posizio hori mantentzeko.

Eta singularra pluralarekin alderatuz hiru silabakoekin gertatu den bezala, azentua hitzaren erroan mantendu da baina eskuineko norabidean [+1] desplazatu da.

3.2.2. Izen deklinabidean: singularra eta plurala

Orain, galdesortako galdera erantzunetan oinarrituta, lau atzizkik azentuan nolako eragina duten ikusiko da gizon eta herri hitzak erabiliz. Atzizkiak edo kasu markak ergatiboa, datiboa, adlatiboa eta jabetza genitiboa dira. Lekuko bakoitzak singularrean eta pluralean esandakoak ondoren datorren taulan agertzen dira:

Atzikia	Lekukoak	Singularra	Plurala
Ergatiboa	L1	[gi'ʂonak]	[ˈgiʂonak]
	L2	[gi'ʂonak]	[ˈgiʂonek]
Datiboa	L1	[giʂo'naj]	[gi'ʂonej]
	L2	[giʂo'naj]	[gi'ʂonej]
Jabetza-genitiboa	L1	[giʂo'nana]	[gi'ʂonena]
	L2	[eri'ʂana]	[e'riʂena]
Adlatiboa	L1	[e'riʂe]	[e'riʂurunts] ¹³
	L2	[e'riʂe]	[eri'ʂetarunts]

12. Taula: Hainbat deklinabide atzizkiren zerrenda.

Taulan ikusi daitekeenez, lekukoek ez dute ezberdintasunik elkarren artean azentuari dagokionez baina singularreko eta pluraleko formek bai. Hori dela eta kasu-marka bakoitzeko singularreko eta pluraleko markek¹⁴ azentua non duten ikusiko da ondoren.

Lehendabizikoa ergatibo marka da. Singularrean azentua hitzaren erroan ageri da, unitatearen bigarren silaban, [-2] posizioan eta pluralean, aldiz, lehen silabara desplazatu da, [+1] desplazatu da unitatearen [-3] posiziora mugituz. Hala ere, erroan mantendu da.

Bigarren marka datiboa da. Kasu honetan, singularrean azentua unitatearen hirugarren silaban kokatzen da, [-1] posizioan, eta hau artikulua eta datibo markak betetzen dute. Pluralean ordea, bigarren silabara desplazatu da, [-1] desplazamendua egin du hitzaren erroaren [-2] posizioa hartuz. Hau honela, azentua hitzean kokatu da.

¹³ Forma hau eman du L1-ek baina ez da pluralekoa, singularrekoa baino.

¹⁴ Orainxe aipatu bezala, oraingoan ere adinak ez dakar ezberdintasunik azentuari dagokionez. Hori dela eta, deklinabide-atzizkien azterketa egiterakoan egokienak iruditu direnak erabiliko dira.

Hirugarrena jabetza genitiboa da. Oraingoan, datiboarekin bezala, singularrean azentua hirugarren silaban kokatzen da, baina [-2] posizioan. Kasu honetan, datibo kasuan bezalaxe, posizio hori atzizkiak betetzen du, artikulua, alegia. Pluralean ostera, bigarren silabara desplazatu da, [-1] desplazamendua egin du [-3] posizioan kokatuz. Leku hau hitzarena da.

Eta azkenik, laugarrena adlatibo marka da¹⁵. Singularrean marka honek azentua hitzean du, bigarren silaban, [-2] posizioan eta pluralean azentua hitzaren errotik pluralgilera igaro da, [-3] posizioa hartuz. Kasu honetan ordea, silabaren desplazamendua [+1] izan da.

Taula honetan ikusi daitezke laburtuta kasu hauek.

	Erga-tiboa	Dati-boa	Jabetza genitiboa	Adlatiboa
Sing.	o-ó-o]	o-o-ó]	o-o-ó-o]	o-ó-o]
Plur.	ó-o-o]	o-ó-o]	o-ó-o-o]	o-o-ó-o-o]

13. Taula: Ikusitako hitzen azentuaren posizioa deklinabide atzizki ezberdinak gehitzean.

3.2.3. Izen deklinabidea: esaldi barruan

Atal honetan galdesortan ageri diren esaldi mota desberdinen errepikapena gauzatu dute lekukoek non *gizonak* eta *sagarra* hitzek duten garrantzia. Horrela, bi izenek osatutako hainbat unitate ezberdinen azentu posibleak agerian utzi dituzte. 14. taulan daude esaldiok¹⁶.

Oraingo honetan ere, esan beharra dago, bi lekukoaren azentuaren artean ez dela ezberdintasunik aurkitu. Hau dela eta, esaldi mota desberdin horietan zer gertatzen den ikusiko da.

Enuntziatibo eran, gizonak unitatea ergatiboa da eta bi azentu jasotzen ditu. Lehendabiziko adibidean objektu zuzena ez da era esplizituan agertzen eta ondorioz, ergatiboa aditzaren aurreko posizioan kokatzen da eta kasu honetan azentua [-2] posizioan du, hitzaren erroan. Baina bigarrenean, objektu zuzena modu esplizituan agertzen da subjektuaren eta aditzaren artean. Kasu honetan gizonak hitzari azentua atzizkira mugitu zaio, hau da, [+1] desplazatu da, artikulura, posizioa eta lekua aldatuz.

Esaldi mota berean, *sagarra* unitatea ere badago baina bi adibideetan azentuan ez zaio aldaketarik gertatu, nahiz eta lehendabizi subjektu espliziturik gabe egon eta gero esplizituki agertzen den *gizonak* hitzaren ondoren. Bi adibideetan, ordea, aditzaren aurreko

¹⁵ Adibide honetan pluraleko forma L2 lekukoak eman du soilik. Baina orain arteko kasu-marketan ezberdintasunik eduki ez dutenez, forma hau orokortu egingo da.

¹⁶ Esaldi mota batzuetan L1 lekukoaren hitzak ez dira ageri behar ziren erantzunak ez baititu eman galdetzailearen hankasartzeen ondorioz.

Esaldi motak	L1	L2
Enuntziatiboa	[gi'ʒonak 'ʒaldu ðaw]	[gi'ʒonak 'ʒaldu ðaw]
	[ʒa'ɣara 'ʒaldu ðaw]	[ʒa'ɣara 'ʒaldu ðaw]
	[giʒo'nak ʒa'ɣara 'ʒaldu ðaw]	[giʒo'nak ʒa'ɣara 'ʒaldu ðaw]
Galdera egiteko		[gi'ʒonak 'ʒaldu ðaw?]
	[giʒo'nak ʒa'ɣara 'ʒaldu ðaw?]	[giʒo'nak ʒa'ɣara 'ʒaldu ðaw?]
Galdera egiteko (harriturik)		[gi'ʒonak 'ʒaldu ðaw o?]
	[giʒo'nak ʒa'ɣara 'ʒaldu ðaw o?]	[giʒo'nak ʒa'ɣara 'ʒaldu ðaw o?]
Galdera egiteko (konfirmatzeko)	[giʒo'nak ʒa'ɣara 'ʒaldu ðaw eʒ'ta?]	[giʒo'nak ʒa'ɣara 'ʒaldu ðaw eʒ'ta?]
		[gi'ʒonak 'ʒaldu ðaw eʒ'ta?]
Galdera egiteko (harriduraz)	[giʒo'nak ʒa'ɣara ʒal'du 'ete ðaw?]	[giʒo'nak ʒa'ɣara ʒal'du 'ete ðaw?]
		[gi'ʒonak 'ʒaldu 'ete ðaw?]
N/Z galderak	[ʒejnek 'ʒaldu ðaw?]	[ʒejnek 'ʒaldu ðaw?]
	[ʒejnek 'ʒaldu ðaw ʒaɣa'ra?]	[ʒejnek 'ʒaldu ðaw ʒaɣa'ra?]

14. Taula: subjektuaren eta osagarri zuzenaren azentuaren kokagunea.

posizioan agertzen da eta bietan [-2] posizioan dauka azentua, hitzaren erroan hain zuzen.

N/Z galderetan izan ezik, beste galdera mota guztietan fenomeno bera gertatzen da. Aditzaren aurreko posizioan agertzen den unitateak -bai *gizonak* bai *sagarra*- azentua [-2] posizioan agertzen du, hitzaren erroan. Baina esaldian posizio horretan barik beste batean badago -objektu zuzenaren aurrean- azentua hitzaren erroatik atzizkira mugitzen da, [+1] desplazatuz, *gizonak* unitateari gertatzen zaion bezala.

Aurreko paragrafoan esan bezala, N/Z galderetan ez da horrelakorik gertatzen. Ikusten den bezala, ez da *gizonak* unitatea agertzen baina bai bera ordezkatzeko duen ergatibozko adberbio bat: *zeiñek*. Bi esaldietan adberbio hori aditzaren aurretik agertzen da eta azentua [-2] posizioan dago, hitzaren erroan. Bigarrenean ordea, objektu zuzena dago, aurreko kasuetan bezala *sagarra* da posizio hori duena. Objektu zuzena izan arren, oraingoan ez da aditzaren aurreko posizioan agertzen, esaldiaren bukaeran baino. Eta ikusten denez azentuaren posizioan eragina du honek, [-1] posizioan baitu. Aurreko adibideekin konparatzen badugu [+1] desplazamendua egin du eta azentua hitzaren erroatik artikulura igaro da.

Laburbilduz:

Esaldi barneko kokapena	Sagarra	Gizonak
Aditzaren aurreko posizioan	o-ó-o]	o-ó-o]
Aditzaren aurreko posizioa ez denean	o-o-ó]	o-o-ó]

15. Taula: Bi hitzen azentuaren posizioa esaldian okupatzen duten lekuaren arabera.

Goiko taulan laburturik ikusten den bezala, eragina du aditzaren aurreko posizioan kokatu edo ez. Hala ere, aurreko adibideekin -galdera-erantzunetako ergatibo kasuarekin eta singularreko hiru silabako unitateekin-konparatzen baditugu, azentuaren kokapenean eta lekuan aldaketak nabaritzen dira:

		Hiru silabako singularra	Ergatiboa
Esaldi barnean	Aditzaren aurreko posizioan	o-ó-o]	o-ó-o]
	Aditzaren aurreko posizioa ez denean	o-o-ó]	o-o-ó]
Esaldiz kanpo		o-ó-o]	o-ó-o]

16. Taula: Esaldi barruko eta kanpoko hiru silabako hitzen konparazioa.

Hemen ikusten denez, esaldietan aditzaren aurre posizioak hitzaren azentuan ez du eragi-ten, mantentzen laguntzen du. Beste posizio bat okupatzean, ordea, gorago esan bezala, azentua [+1] desplazatzen da.

4. Ondorioak

Lan honetan, hasiera-hasieratik ikusten da bi generazioen azentuen artean ez dagoela inolako ezberdintasunik. Nahiz eta kontuan eduki behar den erantzun batean ez direla bat etorri. Bat ez etortze hau, hitzak singularrean eman behar izan dituztenean *kafea* hitzarekin gertatu da. Memoria ariketa eginez, bi lekukoek hitz horri azentua leku ezberdinean jarri diote: [‘kafie] eta [ka’fi]. Halere, talde klitikoan bi lekukoek azentua leku berean markatu dute: [‘kafie ða]. Hau ikusita, ondorioztatu daiteke L2k kanpo eragileren bat duela euskara batua, inguruko pertsonaren bat, beste hizkeraren bat, etab. izan daitekeena nahiz eta ezin den ziur esan, adibide bakarra baitago galdetegi osoan.

Lan honen hasieran esan denaren aurka, esan beharra dago, Markina-Xemeingo azentua ez dela neutraldu. Euskal Herriko hainbat zonaldean [+2] azentu mota dago hedatuta baina lan honetan argi geratu den moduan, Bizkaiko herri honetan [-2] mota dago singularreko formetarako eta [-3] pluralekoetarako:

Singularra	Plurala
ó-o]	
o-ó-o]	o-ó-o]
o-o-ó-o]	o-o-ó-o]
o-o-o-ó-o]	

17. Taula: Singularreko eta pluraleko hitzen azentua.

Hala eta guztiz ere, badaude salbuespenak. Bestek beste, azentu morfologikoa duten hitzak: *intxaurra*, *oilarra*, *habia*, *iturria*, *belarria* eta *kafea*. Hauek azentua posizio finko batean dute, ez zaie mugitzen beste hitzei mugitzen zaien moduan:

Singularra	Plurala
ó-o-o]	ó-o-o]
o-ó-o-o]	o-ó-o-o]

18. Taula: Azentu morfologikodun hitzen jokaera.

Azentu morfologikoaz gain, datibo kasu markan ere ez da azentu mota errespetatzen. Azken silaban kokatzen da azentua singularrean, eta pluralean aurreko silabara aurreratzen da: [giʃo’naj] eta [gi’ʃonej]. Baliteke, ordea, forma hauen azpian *gizonari* eta *gizonei*, [gi’ʃonei], ulertzea. Horrela balitz, azentua beste kasu marken leku berean edukiko luke kasu marka eta ez litzateke salbuespena izango.

5. Esker ona

Eskerrak eman nahiko nizkieke Gotzon Aurrekoetxeari Dialektologia ikasgairako egin nuen lan hura hobetzeko aukera emateagatik eta Leire Gandariasi lana txukuntzen laguntzeagatik.

6. Bibliografia

- Gaminde, I.; Hualde, J. I. (1995). Euskal azentuaren atlaserako: zenbait isoglosa, *ASJU* 29:175-198. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Hyman, L. (1981). *Euskal hizkera eta euskal neurker*. Madrid: Paraninfo.
- Hualde, J. I.; (1997). Euskararen azentuerak. *ASJU* 42. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Van der Hulst, H.; Goedemans, R.; Van Zanten, E. (2010). *A survey of word accentual patterns in the languages of the world*. The Gruyter Mouton: Berlin/New York.